

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

2021

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

HIRUGARREN SARIA:

Hil aurretik amesten dudana

Oihane García Rípodas

Nire bizitza osoan zehar esperoaldi desesperagarri batean murgilduta egon naiz. Ekaitz batean dagoen itsasontzi baten antzera, euria gelditzeko momentuaren esperoan. Baina nire kasuan konplexuagoa zen: nik, sagar soil bat izanik, bizi zikloarekin jarraitu ahal izateko, besterik gabe, norbaitek, edozein izanda ere, hartzea espero bainuen.

Nire inguruan, sagarrondo ezberdinetan, hamaika sagar zeuden, eta nik bezala, egun handia irrikaz espero zuten. Etorkizun batean aukeratua izateko asmoarekin, txikitatik ederrena eta perfektuena izateko hezi naute. Hala ere, baliteke sagar perfektuaren ideia hori “edertasunaren” estandar bat baino ez izatea, goian agintzen dutenek ezarria, hots, pertsonak ezarria. Dena den, nire gurasoek beti esaten zidaten ez nintzela perfektua izan behar pertsonak onartzeko. Hala ere, beti desberdina sentitu naiz. Nire inguruan sagar gorri guztiek beren koloreaz harro egiten zuten irribarre. Ni ordea, sagar berdea nintzen. Sagar berde bat sagarrondo gorri batean. Egia esanda, niretzat hori ez zen inolako arazorik, baino gainontzeko sagarrentzat, aldiz, bai. Egunero nitaz barre egiten zuten, inoiz ez nindutela aukeratuko esaten zidaten bitartean. Amak beti bekaizkeria zela esaten zidan, sagar horiek nire kolore bitxia izan nahi zutela. Izan ere, ez sagarrondoan, ez inguruko sagarrondoetan, ez zegoen ni bezalako sagarrik. Egunero, nitaz iseka egiten zuten bitartean, amaren hitz goxo haiek gogogarutzen eta sinesten saiatzen nintzen. Eta orain, lurrean botata, oraindik haren hitzak gogoratzen saiatzen naiz.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

HIRUGARREN SARIA:

Egun handia gogoratzen dudanean, hotzikara betek gorputz osoa zeharkatzen dit. Oso egun ederra zen, nire bizitza osoan zehar ikusi dudan egunik ederrena. Hala eta guztiz ere, tentsio-egoera oso nabarmena zen, sagar gorri guztiek aukeratuak izan nahi zuten, eta zerbait txarra edota usteldua zutenek ezkutatu egiten zuten. Ni, oso urduri nengoen ere bai. Ustekabean bi pertsona agertu ziren gure sagarrondoari begira, udaberriaren inguruko abesti bat abesten zuten bitartean. Gizon bat eta neska txiki bat. Neskatoak zortzi urte inguru zituen eta kolore urdineko soineko alai bat zeraman jantzita. Gizonak, berriz, kolore gorriko peto bat zeraman alkandora txuri baten gainean. Neskatoaren ile horia ilekorda luze batzuetan bilduta zeukan eta airea eta dantza dela bide udaberriko abestiaren tempoan mugitzen zirela zirudien.

–Gaur udaberriko egun handia da politte.– esan zuen gizonak –Gaur sagarren bilketaren egun handia da!

Neskatoaren begi urdinak, soinekoarekin bat egiten zutenak, bizkor mugitzen ziren sagarrondoan zelai osoaren inguruan, zerbait aurkitu nahian. Haren begiek naufrago batenak ziruditen, itsasoren erdian itsasontzi baten bila dagoen naufrago isolatuaren antzera. Baina neskatoaren begiek, berriz, ingurura kontent begiratzen zuten, desioz beterik.

–Bai aitona, ilusioz beterik nago!

–Duela zortzi urte, zu jaio bezain pronto, hemen aurrean daukagun sagarrondoa landatu nuen –esan zuen gizonak nire sagarrondoari begira–. Eta zu bezala, azken zortzi urte hauetan sagarrondoa hazi da. Urteak joan urteak etorri, hostoak eta fruituak atera zaizkio eta uzta bakoitzean bezala, gaur egun handia denez, sagarrak bilduko ditugu.

–Irrikitan nago aitona!

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

HIRUGARREN SARIA:

Neskatoak aitonaren bizkarrean igo zen, eta, saskia eskuan, sagarrak banan-banan biltzen hasi zen, haren ahots goxoa entzuten zen bitartean, aitonak erakutsi zion abestia abesten. Nire inguruko sagarrak, neskatoaren esku ñimiñoek saskiaren barnean sartzen zituztenean, oihuka eta txaloka hasten ziren. Bat-batean neskaren begi urdinak nire azalean finkatuta sentitu nituen eta bere aurpegia alai eta irribarretsu izatetik harridurazko keinu zorrotz batera igaro zen. Pare bat segunduz haren eskua saskiaren eta bion artean geldirik geratu eta, zer egin ez zekiela, astiro, bere eskua nire azala ukitu zuen. Bero-bero zeukan eskua, eta lore usaina zerion, minutu batzuk lehenago belardian zehar pitxer txiki bat egiteko bitxilore bila ibili izan balitz bezala. Nik beldurra besterik ez nuen sentitzen, aukeratua ez izatearen beldurra, desberdina izatearen beldurra, errefusatua izateraen beldurra. Eta sentsazioen urakan horri sagar berdea izatearen lotsa gehitzen zitzaion.

–Begira aitona, sagar berde bat sagarrondo gorri batean! –ohiukatu zuen neska txikiak aitonari ni nengoen eskuan erakusten zion bitartean– Ez zaizu sinestezina iruditzen?

–Hori guztiz ezinezkoa da, ea, erakutsi.

Neskatoak, pentsakor begira geratu zitzaidan eta, pare bat segundu izan arren, hamaika igaro zirela zirudien. Orduan, lurrera bota behar ninduela pentsatzen nuenean, irribarre egiten ikusi nuela iruditu zitzaidan, aitonari ni nengoen eskua luzatzen zion bitartean.

Gizonaren eskua, neska txikiarenarekin alderatuz, latz eta maskurrez beteta zegoen, bere bizitza osoan zehar eskuak era guztietako lan astunetarako erabili izan balitu bezala. Eta egia esan, nire hipotesiak bide zuzenetik zihoazen.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

HIRUGARREN SARIA:

–Inoiz ez dut horrelakorik ikusi, badaezpada botako dugu. Izan ere, mutazio arraroren bat izango du eta gainontzeko sagarrak ustel ditzake. Gainera, nire bizitza osoan zehar ez dut sekula sagar berderik landatu, gutxiago balio dute eta.

Berbaldia bukatu bezain fite, zakar bat izango banintz bezala lurrera bota ninduen. Eta hori, nire bizitzako aldaketarik bortitzena izan zen.

Lurrera erori aintzin, sagarrondoan zeuden sagar guztien isekak entzun nituen: “Hoixe gertatzen zaie zu bezalako sagarrei, bakarrik saskian postuak kendu nahi dizkiguten sagar ustelduei!”, “Itzuli zaitez behingoz zure zuhaitzera!”, “Hau ez da zure lekua!”...

Malkoak kolpea hartu aurretik iritsi ziren, nire aurpegia jadanik blai eginda zegoen gorputzeko alboaldean sastada izugarria sentitu nuenean. Hala ere, gizonaren aurreiritziengatik erortzen zitzaizkidan malkoak, gizonak erabillitako hitz irainengatik, goragalez betetako begiradarengatik eta mespretxuz botatzeagatik.

Egunak joan egunak etorri, oraindik lurrean nago. Bakarti eta goibel sentitzen naiz, zerura begiratzen dudak bitartean. Batzuetan zeruko hodeiek formak eratzen dituzte eta sagarrondo erraldoi bat ikusten dut, inoiz amestutako sagarrondorik handiena. Bertan kolore gorri nahiz berdeko sagarrak zoriontsu eta bakean bizi dira, liskarrik gabe, isekarrik gabe, diskriminaziorik gabe. Berdintasunean oinarritutako sagarrondoan, hots, gizartean. Baina hau guztia nire irudimenean soilik gertatzen den ametsa da; errealitatean hodei horiek ur masak besterik ez dira, eta ni, aldiz, usteltzen ari den sagarra naiz.

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

HIRUGARREN SARIA:

Kolpea emandako tokian orban marroi bat agertu zait, eta egiten dudan edozein mugimenduk hamaika orratz zorrotzek nire gorputz osoan ziztatu banindute bezala zauritzen nau. Horregatik, egunez lo egiten dut, mina arintzeko. Begiak ixtean sagarrondo perfektuaren ideia utopikoa nire aurrean agertzen da, baina beste behin ere gainerako sagarren hitzak dira malkoren bat isurarazten didatenak.

–Begira ezazue hor, lurrean, hilda, usteltzen. Hori gertatzen zaie desberdinak diren sagarrei –esaten die sagar batek gainotzekoei irribarre artean.

Gaua iristean begiak irekitzen ditut, eta isiltasunean murgilduta, nire gorputz zauritua begiratzen dut. Ez dakit erotuta nagoen, baina hainbeste kolpe ondoren, jada borrokatzeaz nekatuta nago, eta azkenean mundu guztiak dioena onartzen dut. Baliteke sagar horiek guztiek arrazoia izatea, ez naiz sagar normal bat eta gerta dakidakeen gauzarik onena lurrean, isolatuta eta usteldua amaitzea da. Orbanaren inguruan tamaina ezberdineko beste asko agertu dira. Kolore marroiak estaltzen dit ia azal guztia, balio dudan apurraren beste oroigarri mingarri bat. Nire inguruan dauden gainontzeko gai organikoek usteltzen ditut ere bai, gaixotasun kutsakor bat banintz bezala. Izan ere, gainontzekoek izurritetzat hartzen naute, ni ikusi orduko alde egiten baitute.

Azala marroia izatetik txuria izatera igaro da, lizunez beteta nago.

Gaur, argitu orduko, nire bizitzako azken eguna dela susmatu dut. Azken egunetan bizirik dagoen hildako baten antzera egon naiz. Batzuetan amaren hitz goxoak oroitzen ditu: “Gaizki zaudenean, une zoriontsuak gogoratu eta zoriontsu sentituko zara”. Baina orain, minduta, isolatuta eta itxaropenik gabe...

Nola gogoratu dezaket inoiz sentitu ez dudan sentimendu bat?

IRUÑEKO GAZTEENDAKO LITERATUR LEHIAKETA

EUSKERA NARRAZIO 17-18 URTE

HIRUGARREN SARIA:

Begiak azken aldiz ixtera nindoanean, neskatoa agertu zen berriro, baina oraingo honetan ilea solte zeraman. Arraroena isilik zetorrela zen. Izan ere, egunero udaberriko abestia abesten zuen, baina gaur, isilik, makurturik eta alde guztietara begira zegoen, debekatuta dagoen zerbaite egingo balu bezala. Nire aurrean makurtu zen eta berriz ere haren begi urdinek liluratuta utzi ninduten. Eskuetan oihalezko eskularruak zeramatzan, sukaldatzeko erabiltzen diren horiek.

–Barkadazu sagartxo, -malko artean xuxurlatu zuen- Aititek bota orduko lurretik jaso behar zintudan. Eta barkadazu, baita ere, lehenago ez etortzeagatik. Orain berandu dela uste dut, hilda baitzaude.

Lurrean zulo txiki bat egin, barnean sartu ninduen eta lurrez estali zuen zulotxo. Eta hilerrien antzera, pasa den egunean hartutako bitxiloreak inguruan jarri zituen.

...

30 urte beranduago:

–Begira amatxo! –ilehoriko mutiko txiki batek– Zelai osotik hau da sagar berdeak dituen sagarrondo bakarra. Baina ikus ezazu hor, goiko puntan, sagar gorri bat dago... Ez zaizu sinestezina iruditzen?

Emakumeak kolore urdineko soineko alai bat darama jantzita eta haren ilehoria oraindik ere, ilekorda luze batean darama bilduta. Eta bere semeak egindako galderaren aurrean irribarre batek ihes egiten dio, sagarrondo berdearen istorioa oroituz.

-Sagarren azal kolorea berdin du politte –esaten dio emakumeak esku artean hartzen duen bitartean–. Bai gorriak, bai berdeak, bai horiak ere, sagarrak dira. Eta pertsonekin berdina gertatzen da. Gure azal kolorea ezberdina izan arren, denok berdinak gara. Izan ere, garrantzitsuena barnekoa da. Beraz, har ezazu sagar gorri eder hori eta saskian sar ezazu!